— Langile autonomoen araubide berezian edo, hala badagokio, aurreikuspeneko mutualitate baliokidean alta emanda dagoelako aitorpena.

3. Nolanahi ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailak nahi dituen agiri eta informazio osagarri guztiak eskatu ahalko dizkie erakunde eskatzaileei, erakundeok aurkeztu duten eskabidea ondo ebaluatu eta ebaztearren.

## 8. artikulua.—*Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak*

Honako gastu hauek joko dira diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat: negozioa kokatzen den lokalaren errentamendua; negoziolokaleko hornidurak (argia, ura, gasa, telefonoa); aseguru-primak; garbitasuna eta mantentze-lana; bulegoko materiala; profesional independenteen zerbitzuak; publizitatea eta promozioa; Gizarte Segu-

— En su caso, documento acreditativo de haber estado en situación de riesgo de exclusión social en momento inmediatamente anterior a la fecha de alta de la entidad en Actividades Económicas, por cada persona promotora que compute a efectos del cálculo de subvención.

— Certificado de empadronamiento que acredite la residencia habitual en el Territorio Histórico de Bizkaia, referido a la fecha de alta en actividades económicas por cada persona promotora que compute a efectos del cálculo de subvención.

— Declaración de Alta en el Régimen Especial de Autónomos o, en su caso, Mutualidad de previsión social equivalente, por cada persona promotora a que compute a efectos del cálculo de subvención.

En el caso de personas socias trabajadoras de cooperativas de trabajo asociado o de socias trabajadoras de sociedades laborales, que hayan optado por darse de alta en el régimen general de Seguridad Social, copia de dicha alta.

b) En el caso de empresarios, empresarias individuales o profesionales habrá de presentarse la siguiente documentación:

— Ficha de acreedor del empresario, empresaria individual y profesional: el número de cuenta reflejado en la misma deberá coincidir con la cumplimentada en la solicitud.

— Documento acreditativo de la realización de los cursos formativos especificados en el artículo 2a y 2b del Decreto Foral 163/2014 por una de las personas socias promotoras que cumpla los requisitos establecidos en el artículo 4C.

— Plan de negocio, que contenga en todo caso informe de evaluación sobre la viabilidad del proyecto realizado por la entidad asesora.

El informe de viabilidad deberá determinar expresamente la viabilidad o no del proyecto presentado.

El informe que no determine la viabilidad del proyecto conllevará la imposibilidad de obtener subvención por dicho proyecto con cargo a esta orden foral de convocatoria en la modalidad del artículo 5, B).

— Documento acreditativo de haber estado en situación de desempleo referido a la fecha de alta en actividades económicas por cada persona promotora que cumpla los requisitos del artículo 4.B.

Dicha acreditación habrá de realizarse mediante la presentación del «Informe de períodos de inscripción y de situación laboral» expedido por Lanbide e «Informe de vida laboral» expedido por la Seguridad Social.

En caso de incongruencia entre los dos informes citados se atenderá al de la vida laboral.

— En su caso, documento acreditativo de haber estado en situación de riesgo de exclusión social en momento inmediatamente anterior a la fecha de alta en Actividades Económicas.

— Certificado de empadronamiento que acredite la residencia habitual en el Territorio Histórico de Bizkaia, referido a la fecha de alta en actividades económicas por cada persona promotora que compute a efectos del cálculo de subvención.

— Declaración de Alta en el Régimen Especial de Autónomos o, en su caso, Mutualidad de previsión social equivalente.

3. En cualquier caso, el Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesaria para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

## Artículo 8.—*Gastos subvencionables*

Tendrán la consideración de gastos subvencionables el arrendamiento del local donde se ubique el negocio, suministros del local de negocio (luz, agua, gas, teléfono); primas de seguros; limpieza y mantenimiento, material de oficina; servicios profesionales independientes; publicidad y promoción, las cotizaciones a la Seguri-

cve: BAO-BOB-2015a078

rantzan autonomoen araubide berezian edo haren pareko mutualitateren batean egiten diren kotizazioak, bai eta araubide orokorreko gertakizun arruntetakoak ere (enpresak ekonomia-jardueretan alta hartu eta, gehienez ere, urtebeteko epean zehar sorturikoak).

Diru-laguntza justifikatzeko, lokalek sortutako gastuak jarduerari lotuta daudela egiaztatzen den neurrian hartuko dira kontuan.

**9. artikulua.—*Laguntzak emateko prozedura***

Atal honetan araututako diru-laguntzak norgehiagokarik gabeko araubidearen bidez emango dira, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluan ezartzen den legez.

Dekretu honen ondorioetarako, norgehiagokarik gabeko araubidetzat jotzen da eskariak jaso ahala, Bizkaiko Foru Aldundiko Erregistroan eskabideari eman zaion erregistroko sarrera-zenbakiaren lehentasunezko hurrenkeraren arabera, funtsak banatzen dituen sistema, eta betiere deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte, aurrekontuko zuzkidurak agortu arte.

Halere, aurrekontuko kreditu baliagarriak 44300 eta 44900 partidetakoak dira, beraz norgehiagokarik gabeko araubidea ezarriko da foru agindu honen azken xedapenean xedatutakoaren arabera aipatutako partida horietako bakoitzeko aurrekontuko zuzkidurak ahalbidetzen duen arte.

**10. artikulua.—*Diru-laguntzaren justifikazioa***

Emandako laguntza justifikatzeko, diruz laguntzekoak diren gastuen fakturak edo behar bezala justifikatutako eta bakoitzari dagokion agiri-euskarria duten froga-izaera baliokideko kontabilitateko agiriak aurkeztuko dira, bai eta haiei dagozkien ordainketen ordainagirien kopiak ere.

Edozein kasutan, justifikatzeko aurkezten diren fakturek diru-laguntza jaso duen pertsonaren izenean egon behar dute; IFZ ere adierazi behar da.

Zehazkiago esateko, negozioaren lokala alokairukoa bada, gastuak justifikatu ahal izateko, errentamendu-kontratua aurkeztuta baino ez dira justifikatutzat joko alokairu hori dela-eta eginiko gastuak. Gainera, aldian-aldian egin diren ordainketa horiei buruzko bankuko oharra ere aurkeztu behar da.

Halere, aurreko paragrafoetan zehaztu diren gastuak kontuan hartzeko, bada nahitaez bete beharreko baldintza bat: ekonomi jardueretan alta eman eta ondoko urtean zehar (urte bat, gehienez ere) Gizarte Segurantzan autonomoen araubide berezian edo haren pareko mutualitateren batean egiten diren kotizazioen ordainketen egiaztagiriak aurkeztea; horretarako, hileko ordainketen bankuko ordainagiri egiaztagiriak edo ordainketa horiek egiaztatzen dituen Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako agiria (Oinarriei eta ordaindutako kuotei buruzko txostena).

Jarduera ekonomikoetan alta hartzen den unetik aurrera hartuko dira kontuan gastu guztiak; alegia, alta hartu eta hurrengo urtean zehar eginikoak. Jarduera ekonomikoetan baja hartuz gero edo ez bada egiaztatzen hilean-hilean ordaindu direla Gizarte Segurantzaren kuota zein haren pareko mutualitate batena, orduan proportzionalki banatuko da altak iraun duen denboran edo goiko ordainketa horiek egin diren artean emaniko kopuruak, eta, ondorioz, gutxitu egingo da lehen adjudikaturiko diru-laguntzaren zenbatekoa.

Edozein kasutan, jarduera ekonomikoetan baxa emateak, data horretatik aurrera ordaintzeko gelditzen diren diru-kopuruak jasotzeko eskubidea galtzea suposatuko du.

Justifikazioa hilabeteko epearen barruan aurkeztu beharko da, jarduera ekonomikoetan alta eman denetik urte bat betetzen denetik zenbatuta.

**11. artikulua.—*Diru-laguntza ematea eta errekurtsoak***

Ekonomia Sustatzeko Saileko foru diputatuaren ebazpen adierazi baten bidez ebatziko dira eskabideak; ebazpen hori interesdunei bidaliko zaie, banan-banan. Diru-laguntzarako eskabideei baiezkoa ematea ebazten duen foru aginduan, kasu bakoitzerako baldintza bereziak ezarri ahalko dira, eta erakunde onuradunek baldintza horiek guztiak bete beharko dituzte.

dad Social en el régimen especial de autónomos, o mutualidad correspondiente así como por contingencias comunes en el régimen general, generados durante un período máximo de un año a partir del Alta en Actividades Económicas de la empresa.

Los gastos generados por locales se tendrán en cuenta, a efectos de justificación de la subvención, en la proporción en que se acredite que están afectos a la actividad.

**Artículo 9.—*Procedimiento de concesión***

Las subvenciones reguladas en esta Sección se concederán en régimen de libre concurrencia, previsto en el artículo 20 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

Se entiende, a los efectos del presente Decreto como libre concurrencia el procedimiento mediante el cual se distribuyen los fondos según se reciban las peticiones, atendiendo al orden prioritario de Registro de entrada de la solicitud en el Registro de la Diputación Foral de Bizkaia, y siempre que reúnan los requisitos establecidos en la convocatoria hasta que las dotaciones presupuestarias lo permitan.

No obstante, los créditos presupuestarios disponibles corresponden a las partidas 44300 y 44900, por lo que la libre concurrencia se realizará hasta que lo permita la dotación presupuestaria de cada partida citada, conforme lo previsto en la disposición final de la presente orden foral.

**Artículo 10.—*Justificación de la subvención***

La ayuda otorgada se mediante la presentación de las facturas justificativas de los gastos subvencionables incurridos o documentos contables de valor probatorio equivalente que estén debidamente justificados y acompañados del correspondiente soporte documental, así como copia de los correspondientes comprobantes de abono.

En todo caso las facturas aportadas como justificación deberán estar emitidas a nombre de la persona beneficiaria de la subvención, con su NIF.

En concreto, en el supuesto de arrendamiento de local de negocio, y a efectos de justificación, únicamente se considerarán justificados los importes abonados por dichos conceptos si se adjunta el contrato de arrendamiento, y se adjunta anotación bancaria de los pagos sucesivos.

No obstante será requisito imprescindible para tener en cuenta los gastos detallados en los párrafos precedentes, la aportación de los correspondientes comprobantes de abono de las cotizaciones a la Seguridad Social en el régimen especial de autónomos, o mutualidad equivalente, generados durante un período máximo de un año a partir del alta en Actividades Económicas, a tal fin se adjuntaran los recibos bancarios acreditativos de los abonos mensuales o documento emitido por Tesorería General de la Seguridad Social que acredite dichos abonos.(«Informe de bases y cuotas ingresadas»).

Todos los gastos se tendrán en cuenta desde el momento del alta en la actividad económica correspondiente durante un período de un año. La no acreditación del abono mensual a la Seguridad Social o mutualidad equivalente producirá el prorrateo de las cantidades otorgadas durante el tiempo que se estuvo de alta, o el tiempo en que se acreditara el abono, y consiguiente minoración del importe de subvención adjudicado.

En todo caso, la baja en la actividad económica producirá la perdida del derecho al cobro de las cantidades pendientes de abono a partir de dicha fecha.

La presentación de la justificación habrá de realizarse en el plazo de un mes desde el transcurso de un año del alta de actividad económica.

**Artículo 11.—*Otorgamiento y recursos***

Las solicitudes serán resueltas mediante resolución expresa e individualizada del Diputado Foral de Promoción Económica. En la Orden Foral por la que se resuelvan positivamente las solicitudes de subvención, podrán establecerse condiciones específicas a cada caso, que serán de obligado cumplimiento por parte de los beneficiarios de subvención.

cve: BAO-BOB-2015a078

Laguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen beharrezkoa izango da zerga betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak egunera arte bete direla egiaztatzea. Edozelan ere, goian aipatu diren inguruabarrak egiaztatzeko, ez da inongo erakunderen ziurtagiririk aurkeztu behar: eskabidea aurkeztean, eskatzaileak baimena ematen dio Ekonomia Sustatzeko Sailari, zuzenean eta telematikoki eskura ditzan inguruabarrok egiaztatzeko agiriak.

Onuradun bati diru-laguntza eman dion foru agindua jakinarazitakoan, hamar eguneko epea izango du onartzeko; epe horretan ez badu beren-beregi ezer adierazten, isilbidez onartutzat joko da.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.3. artikuluan (ondoren urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatua) xedatutakoaren arabera, eskabideari erregistroan sarrera-data ezarri eta ondorengo sei hilabeteko epearen barruan eman beharko da hari buruzko ebazpena. Aurkeztutako eskabide guztien ebazpen adierazia emateko eskumena duen organoak ebazpena eman behar badu ere, ebazpena eta jakinarazpena emateko epea iraungi, eta ebazpen adierazia eman ez badu, eskabidea administrazio isilbidez ezetsi egin duela ulertuko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatua) xedatutakoaren arabera.

Diru-laguntzari buruzko ebazpenak administrazio-bidea amaituko du eta haren aurka interesdunek nahi izanez gero berriro aztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete ebazpena eman duen organoari berari edo, bestela, zuzenean haren aurka egin dezakete administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, azaroaren 26ko 30/92 Legearen 117. artikuluan (urtarrilaren 13ko 4/99 Legearen bidez aldatua) eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 48. artikuluan ezarritako epeetan.

**12. artikulua.—*Diru-laguntza ordaintzea eta justifikatzea***

Emandako laguntza epe hauetan ordainduko da:

1. Diru-laguntza ematen den unean gehienez diru-laguntzaren %70eraino ordainduko da.

2. Gainerako %a 2016. urtean, ekintzak garatzeko emandako laguntzaren justifikazioa egindakoan, hilabete bateko epean ekonomi jardueretan alta eman denetik urtebete igarotakoan; horretarako, 10. artikuluan xedatutako frogagiriak aurkeztu beharko dira.

Frogagiriak aurreko paragrafoan adierazitako epean aurkeztu ezean, errekerimendua egingo zaio 163/2014 Foru Dekretuaren 37. artikuluan aurrez ikusitako prozedura hasi aurretik, zeina hasiko baita frogagiriak aurkezten ezean edo ondo aurkeztu ezean.

Betebeharra aitortu eta diru-laguntza ordaindu aurretik, erakunde onuradunek zerga betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak bete dituztela egiaztatuko da. Egindako egiaztapenaren ondorioz gertatuz gero erakunde onuraduna ez dagoela egunean zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzararekiko betebeharretan, 163/2014 Foru Dekretuaren 37 artikuluan ezarri den bete ez egitearen ziozko prozedura hasiko da, eta interesdunari ohartaraziko zaio eman zitzaion laguntzaren zenbatekoa kobratzeko eskubidea galduko duela, eta ondorioz emandako zenbatekoa doitu egin behar zaiola.

**13. artikulua.—*Egitarauaren jarraipena. Ikuskapena eta kontrola***

Bestalde, laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak funtsean aldatzen dituzten gertakari guztien berri eman beharko diote eta laguntza eskaini beharko diote Ekonomia Sustatzeko Sailari, egiaztapen, jarraipen eta kontrol prozeduretan.

Ekonomia Sustatzeko Sailak azaroaren 25eko 163/2014 dekretuan ezarritako helburuak lortuko direla bermatzeko beharrezko ikuskapen eta kontroleko ekintza guztiak egin ahal izango ditu.

**14. artikulua.—*Emandako diru-laguntzen publizitatea***

Ekonomia Sustatzeko Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez aginduko da deialdi honetan emandako diru-laguntzen

Será requisito necesario para el otorgamiento de la ayuda acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias, en su caso, frente a la Seguridad Social. En todo caso, no habrá de aportarse certificación del organismo correspondiente acreditativo de dichas circunstancias, sino que la presentación de la solicitud conlleva la autorización del solicitante para que el Departamento de Promoción Económica obtenga de forma directa la acreditación de dichas circunstancias de forma telemática.

Notificada la Orden Foral de otorgamiento de la subvención se dispondrá de un plazo de diez días para su aceptación, transcurrido el cual sin haberse producido manifestación expresa se entenderá tácitamente aceptada.

Según lo dispuesto en el artículo 42.3 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, modificada por la Ley 4/1999 de 13 de enero, la resolución será dictada en el plazo de seis meses a contar desde la fecha en que la solicitud haya causado entrada en el registro. Sin perjuicio de la obligatoriedad del órgano competente de dictar resolución expresa en todas las solicitudes presentadas, si vencido el plazo de resolución y notificación, ésta no se hubiese dictado expresamente, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo, conforme al artículo 44 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, modificada por la Ley 4/1999 de 13 de enero.

La resolución de la solicitud de subvención agota la vía administrativa y contra la misma los interesados podrán interponer potestativamente recurso de reposición ante el mismo órgano que la dictó o ser impugnadas directamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo, en los plazos previstos en los artículos 117 de la Ley 30/92 de 26 de noviembre, modificada por Ley 4/99 de 13 de enero, y en el artículo 46 de la Ley 29/1998 de 13 de julio.

**Artículo 12.—*Pago de la subvención***

La ayuda otorgada se abonará en los siguientes plazos:

1. En el momento de concesión de la ayuda, se abonará hasta un máximo del 70% de la subvención otorgada.

2. El % restante, en el año 2016, a la justificación de la ayuda otorgada para el desarrollo de las acciones, que habrá de presentarse plazo de un mes desde el transcurso de un año del alta de actividad económica, mediante la presentación de la documentación justificativa que detalla el artículo 10.

En el supuesto de que la documentación relativa a la justificación no se presentará en el plazo previsto en el párrafo anterior, se le requerirá a su presentación con carácter previo al inicio del procedimiento previsto en el artículo 37 del Decreto Foral 163/2014, el cual se iniciará si requerida la justificación no se presentara o se presentara de forma deficiente.

Previo al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que las entidades beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y, en su caso, frente a la Seguridad Social. Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que la entidad beneficiaria no se halla al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social se iniciará el procedimiento de incumplimiento establecido en el artículo 37 del Decreto Foral 163/2014 con el apercibimiento de que perderá el derecho al cobro del importe de la ayuda otorgada de que se trate y con el resultado de reajuste de la cantidad otorgada.

**Artículo 13.—*Seguimiento del Programa. Inspección y control***

Por otra parte, quedan obligadas a comunicar cualquier eventualidad que altere sustancialmente las condiciones del otorgamiento, así como a colaborar con el Departamento de Promoción Económica en los procedimientos de comprobación, seguimiento y control.

El Departamento de Promoción Económica podrá realizar las acciones de inspección y control necesarias para garantizar el cumplimiento de las finalidades perseguidas en el Decreto 163/2014 de 25 de noviembre.

**Artículo 14.—*Publicidad de las subvenciones concedidas***

Mediante Orden Foral del Diputado Foral del Departamento de Promoción Económica, se ordenará la publicación en el «Bole-

cve: BAO-BOB-2015a078

laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila; horrez gain, adieraziko da bakoitza zein egitarau eta aurrekontuko kredituri egozten zaion, baita erakunde onuradunen zerrenda eta emandako kopuruak ere.

**15. artikulua.—*Elkarrekin finantzatzea***

Foru Agindu honetan xedatutako diru-laguntzek Europako Gizarte Funtsaren finantzaketa ere jaso dezakete, enplegu-aukerak, enpresa-espiritua eta moldagarritasuna, eta aukera-berdintasuna bultzatuz eta giza baliabideetako inbertsioa sustatuz enplegua garatzen laguntzea baita funts horren xedea.

2013ko abenduaren 20an Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Araudian xedatutakoa betetzeko, adjudikazioari buruzko foru aginduan emango zaie onuradunei kofinantzaketa horren berri, baina Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 17.3. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Baldin eta 2014-2020ko Europako Gizarte Funtsaren Programaren barruko kofinantzaketa gauzatzen bada, EGFren kofinantzaketa ere aipatu beharko da laguntzen komunikazio-ekintzetan.

AZKEN XEDAPENAK

**Lehena.—*Indarrean jartzea***

Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

**Bigarrena.—Aurrekontuko diru-izendapena**

163/2014 Foru Dekretuaren 4. azken xedapenean xedatutakoarekin bat etorrita, foru agindu honen arabera eman daitezkeen laguntzak eta onurak hurrengo partiden eta aurrekontuko diru-izendapenen kontura ordainduko dira. Partida eta diru-izendapen horiek, halere, aurrekontuei buruzko indarreko araudiaren arabera aldatu ahal izango dira.

Partida: 0806/G/320203/44300 2008/0075:

— Hainbat urtetarako gastua: 2.468.767,37 euro.

— Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:

• 2015. urtea: 1.481.260,42 euro.

• 2016. urtea: 987.506,95 euro.

Partida: 0806/G/320203/44900 2008/0075:

— Hainbat urtetarako gastua: 502.153,00 euro.

— Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:

• 2015. urtea: 301.292,00 euro.

• 2016. urtea: 200.861,00 euro.

Ezarritako kreditu-muga dela bide, hartan dauden ekonomi baliabideek ahalbidetzen dituzten laguntzak bakarrik sar daitezke deialdi honen babesean.

Bilbon, 2015eko apirilaren 17an.

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua,
IMANOL PRADALES GIL
(I-765)

●

**Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren 3173/2015 FORU AGINDUA, apirilaren 17koa. Honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 9ko 163/2014 Foru Dekretuaren II. tituluan —«Enplegua sortzeko diru-laguntzen neurri berezia»— jasotako diru-laguntzen deialdia arautzen da. Foru dekretu horren bidez, langabezian eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen autoenplegua eta enpresen sorrera sustatzeko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri dira.**

2015eko abenduaren 9koa 163/2014 Foru Dekretuaren bidez, bereziki langabezian eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen autoenplegua eta pertsona horiek enpresak sortzea sustatzeko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira, eta, dekretu horren II. tituluan, enplegua sortzeko diru-laguntzen neurri berezia aurrez ikusten dira.

tín Oficial de Bizkaia», del extracto de las subvenciones concedidas correspondientes a la presente convocatoria, con expresión del programa y crédito presupuestario al que se imputen, así como el listado de las entidades beneficiarias y cantidad concedida.

**Artículo 15.—*Cofinanciación***

Las subvenciones contempladas en la presente Orden Foral podrán estar cofinanciadas por el Fondo Social Europeo, cuyo fin es contribuir al desarrollo del empleo impulsando la empleabilidad, el espíritu de empresa y la adaptabilidad, la igualdad de oportunidades y la inversión en recursos humanos.

En cumplimiento de lo establecido en el reglamento 1303/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo de 17 de diciembre de 2013, publicado en el Diario Oficial de las Comunidades Europeas de 20 de diciembre de 2013, de dicha cofinanciación se informará a las entidades beneficiarias en la Orden Foral de adjudicación, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 17.3 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

En el caso de que la cofinanciación por FSE en el marco del Programa Operativo FSE 2014-2020 País Vasco se llevara a término, habrá de mencionarse la cofinanciación del FSE en las acciones de comunicación de las ayudas.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera.—*Entrada en vigor***

La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

**Segundo.—*Consignación presupuestaria***

De conformidad con la Disposición Final 4.ª del Decreto Foral 163/2014 las ayudas y beneficios que puedan otorgarse con arreglo a la presente Orden Foral, se efectuarán con cargo a las siguientes partidas y dotaciones presupuestarias, sin perjuicio de que las mismas puedan ser modificadas de conformidad con la normativa presupuestaria vigente.

Partida: 0806/G/320203/44300 2008/0075:

— Gasto plurianual: 2.468.767,37 euros.

— Importe y distribución por ejercicios:

• Año 2015: 1.481.260,42 euros.

• Año 2016: 987.506,95 euros.

Partida: 0806/G/320203/44900 2008/0075:

— Gasto plurianual: 502.153,00 euros

— Importe y distribución por ejercicios:

• Año 2015: 301.292,00 euros.

• Año 2016: 200.861,00 euros.

En virtud del límite de crédito consignado, únicamente podrán acogerse al amparo de esta convocatoria, las ayudas que permitan las disponibilidades económicas existentes.

En Bilbao, a 17 de abril de 2015.

El diputado foral de Promoción Económica,
IMANOL PRADALES GIL
(I-765)

●

**ORDEN FORAL del diputado foral de Promoción Económica 3173/2015 de 17 de abril, por la que se regula la convocatoria de las ayudas contenidas en el Título II «Medida Especial de ayudas por Creación de empleo» del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 163/2014, de 9 diciembre, por el que se establecen las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para el fomento del autoempleo y la creación de empresas por personas desempleadas y en riesgo de exclusión.**

El Decreto Foral 163/2014, de 9 diciembre, del Departamento de Promoción Económica establece las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para el fomento del autoempleo y la creación de empresas especialmente dirigido a personas desempleadas y en riesgo de exclusión, así el Título II, prevé una medida especial de ayudas por creación de empleo.

cve: BAO-BOB-2015a078